

ORDENANTZA FISKALA, IRUÑEKO ANIMALIAK HARTZEKO ZENTROAK EMANDAKO ZERBITZUEN ETA ARRISKUGARRI GERTA DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEKO LIZENTZIEN TRUKE ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

16. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehen Tituluko IV. Kapituluko 7. Atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan emandako baimenaren babesean ezarri da.

Zergapeko egitatea

2. artikulua.- Zergapeko egitatea honako hauek osatzen dute:

a) Iruñeko Animaliak Hartzeko Zentroak ematen dituen zerbitzuak

- Zoonosi Unitateak zakurrak eta bestelako animaliak harrapatu eta etxe partikularretatik jasotzea.

- Zakurren eta bestelako animalien egonaldiak, Animaliak Hartzeko Zentroan.

b) Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak emateko behar diren zerbitzu tekniko eta administratiboak.

Tasaren sortzapena

3. artikulua.- Iruñeko Animaliak Hartzeko Zentroaren zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasak zerbitzua ematen hastean sortuko dira, nahiz horien zenbatekoa aurretik paratzea eskatzen ahal den, osoki edo hein batean.

Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia emateagatik ordaindu beharreko tasa lizentzia eskatzean sortuko da, eta lizentzia ez da bideratuko baldin eta, aurretik, tasa ordaindu ez bada.

Subjektu pasiboak

4. artikulua.- Ordenantza honen 2. artikuluan a) idatzi-zatiko zerbitzuei dagozkien tasak, kasuan kasukoak, honakook ordaindu behar dituzte: eskatzaileak edo, zuzenean interesdun izanik, zerbitzuaren onura jaso duten pertsonak, edo Udalaren esku-hartzea derrigortu duten egoeren erantzule direnak.

Ordenantza honen 2. artikuluan b) idatzi-zatiko lizentzia emateak eragindako tasak arriskugarri izan daitekeelakoan Udalaren 13. Ordenantzaren babespean horrelakotzat sailkatutako edozein animaliarene jabe edo edukitzaileek ordaindu behar dituzte.

Tarifak

5. artikulua.- Kasu bakoitzean aplikatu beharreko tarifak Ordenantza honen Eranskinean daude jasota.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

6. artikulua.- Ordenantza honetan Iruñeko Animaliak Hartzeko Zentroak ematen dituen zerbitzuengatik ezarritako tasak Zentro horretan jarritako eskudirutako kutxan ordaintzen ahalko dira.

Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak emateagatik ezarritako tasak Udaleko Diruzaintzan ordainduko dira, eta lizentzia eskatzeko orriari erantsiko zaio ordaindu izanaren egiaztatzea.

7. artikulua.- Udal-zerbitzuek bildutako animaliak berreskuratzeko, Iruñeko Animaliak Hartzeko Zentrora jo behar da eta bertatik jaso, betiere tasak ordaindu eta gero.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA.- ANIMALIAK BILDU EDO HARRAPATZEA.	
- Animalia bakoitzeko	24,15 euro
II. EPIGRAFEA.- EGONALDIAK IRUÑEKO ANIMALIAK HARTZEKO ZENTROAN.	
- Albaitarien aginduz bete beharreko egonaldiak, eguneko	3,55 euro
- Bestelako egonaldiak, eguneko	7,05 euro
III. EPIGRAFEA.- ARRISKUGARRI GERTA DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEKO LIZENTZIAK.	
- Lizentzia bakoitzeko tarifa	38,55 euro